

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Urduñako Udala

Ayuntamiento de Urduña / Orduña

2009



AURKIBIDEA/ÍNDICE

0. LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 Udala.....	10
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	11
II.2 Sozietate publikoak: Urduñederra, Urduña Ederra, S.L. eta Urduñako Arkupea, S.L.....	13
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	13
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	14
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	15
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	15
III.2 Langileria.....	16
III.3 Diru-laguntzak.....	17
III.4 Kontratazioa.....	17
III.5 Diruzaintza.....	19
III.6 Beste batzuk.....	19
III.7 Sozietate publikoak: Urduñederra, Urduña Ederra, S.L. eta Urduñako Arkupea, S.L.....	20
IV. FINANTZA ANALISIA.....	23
V. URTEKO KONTUAK.....	27
V.1 Udala.....	27
V.2 Udalaren sozietate publikoak.....	30
V.2.1 Urduñederra, Urduña Ederra, S.L.	30
V.2.2 Urduñako Arkupea, S.L.....	31
ALEGAZIOAK.....	32

0. ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN.....	41
II. OPINIÓN.....	42
II.1 Ayuntamiento.....	42
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	43
II.2 Sociedades públicas: Urduñederra, Urduña Ederra, S.L. y Urduñako Arkupea, S.L.....	45
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	45
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	46
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	47
III.1 Presupuesto y contabilidad	47
III.2 Personal.....	48
III.3 Subvenciones.....	49
III.4 Contratación	49
III.5 Tesorería.....	51
III.6 Otros	52
III.7 Sociedades Públicas: Urduñederra, Urduña Ederra, S.L y Urduñako Arkupea, S.L.....	52
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	55
V. CUENTAS ANUALES	59
V.1 Ayuntamiento.....	59
V.2 Sociedades Públicas locales.....	62
V.2.1 Urduñederra, Urduña Ederra, S.L.	62
V.2.2 Urduñako Arkupea, S.L.....	63
ANEXOS	65
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	65
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	65
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	69
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	70
A.5 Enajenación de inversiones reales	70
A.6 Gastos de personal	72
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios.....	73
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	74
A.9 Inversiones reales.....	75

A.10 Pasivos financieros	76
A.11 Deudores presupuestarios.....	76
A.12 Operaciones extrapresupuestarias.....	77
A.13 Inmovilizado financiero	77
A.14 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	78
A.15 Clasificación funcional del gasto	79
A.16 Análisis de contratación	80
A.17 Sociedades Públicas locales.....	82
A.17.1 Urduñederra, Urduña Ederra, S.L.....	82
A.17.2 Urduñako Arkupea, S.L.....	85
A.17.3 Contratación sociedades.....	86
ALEGACIONES	87

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 15a
Vitoria-Gasteiz, a de 15 marzo de 2012





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

0. LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
LETB	1/1995 Legegintzako Errege-Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
APKLEO	1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra,
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
UDALHITZ	Tokiko euskal erakundeetan lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Urduñako Udalaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere sozietate publikoen egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita Udalaren aurrekontuaren likidazioa ere.

Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Urduñako Udalak 4.220 biztanle ditu 2009ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera; bere egiturari, Udalaz gain honako sozietate publiko hauek besarkatzen ditu: Urduñederra, Urduña Ederra, SL (Udalaren % 86,26ko partaidetza du eta xede soziala egoitza, industria eta zerbitzuen sektorerako lurzorua sustatzea da); Urduñako Arkupea, SL (Udalaren % 100eko partaidetza du eta xede soziala hirugarren adinekoei, gazteriari eta gainerako taldeei laguntza zerbitzuak ematea da, egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza eta sorospen-zerbitzuak ematearekin lotutako bestelako zeinahi jarduera ustiatzea).



II. IRITZIA

II.1 UDALA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. 2009ko ekitaldian zehar pertsona bat bitarteko lan kontratu baten bitartez kontratatu zen; ordea, ez zitzaion behar hainbateko publizitaterik eman, eskaintza soilik Udalaren iragarki ohoelan argitaratu baitzen, EFPLren 33.1 artikulua urratuz.

KONTRATAZIOA

2. Udalak indarrean du Edateko uraren udal zerbitzua kudeatzeko kontratua; kontratu hau zuzenean esleitu zen 1988an bi urtetarako eta beste hirutara luzagarri, errentamendu bidezko kudeaketa kontratu modura. Nahiz 1993ko urrian amaitzen zen, kontratuak indarrean dirau gaur egun, Udalak ulertzen baitu, errentamendu bidezko kudeaketaren desagertutako molde juridikoa zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu bilakatu behar dela, gehienera 25 urteko iraupenarekin. Aldaketa hori ez da behar bezala justifikatu. Zerbitzu horren kostua 2009an 141 mila eurokoa izan da.

Bestalde, zerbitzuaren esleipen hartzaile den enpresak egiten du edateko uraren etxez etxeko hornidura kontzeptuko diru-sarreraren diru-bilketa. Diru-sarrera horiek tasa izaera dutenez gero, Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako araubideari jarraiki, zuzenbide pribatuko subjektu batek ezin du zuzenean horiek ordaintzeko agindu. 2011ko martxoaren 29an Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren batzar nagusiak Urduñako Udala partzuergoan sartzea onetsi du eta honek udalerrian edateko uraren hornidura kudeatzeko ardura izango du.

3. 2005eko urtarrilaren 19an Urduñako Udalak eta Bizkailur, SAU Merkataritza Sozietateak hirigintza hitzarmen bat gauzatu zuten eta horren indarrez sozietateak “La Tejera” izeneko industrigunerako sarbide berriaren kudeaketa eta egikaritza egiteko konpromisoa hartu zuen; horren kostua 1.655 mila eurokoa izan da, BEZ barne (ikus A.5). Bestalde, 2006ko azaroaren 30ean udalbatzak Bizkailur, SAUren alde “La Rondina” izeneko urbanizazio lanak esleitzeko beste hitzarmen bat onartu zuen; hitzarmen honen egikaritza sistema kooperazio bidezkoa zen eta 8.341 mila euroko kostua izan du. Horrela, bada, nahiz Bizkailur, SAU jabe bakartzat BFA duen sozietatea den, bi hitzarmenak obren kontratu publikoak dira, zuzenean lehiaketarik bideratu gabe esleitu direnak; horrek kontratuen arautegia urratzen du (APKLTBren 3 eta 4.n artikulua, SPKLren 24.6 artikuluaekin lotuta).
4. Arkitektura gaietan aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko kontratua eta eraikin publikoak garbitzekoa (1 eta 3 zenbakiko espedienteak), lehenengoa 2005eko ekitaldian esleitu zuten 4 urteko aldirako eta bigarrena, 2000ko urtean guztira 6 urteko iraupenarekin, luzapenak barne; horien indarraldia, hurrenez hurren, 2009ko martxoan eta 2006ko maiatzean amaitu da eta ez da beste prozedurarik abiarazi publizitate eta lehia printzipioei meneraturik (ikus A.16). Zerbitzu horiek 2009ko ekitaldian zehar izan duen kostua 46 eta 139 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. 2011ko ekitaldian bi



kontratuak publikitadedun prozedura negoziatu bidez eta prozedura ireki bidez esleitu dira.

5. Udalak 2009ko ekitaldian 40 mila euroko gastua egikaritu du, 2007an golf zelaia kudeatzeko zuzenean esleitutako kontratu baten ondorioz, publikitate eta lehia printzipioak batere gorde gabe. Kontratu hori 2009ko urte amaieran desegin zen eta 2010eko otsailean beste hirugarren bati esleitu zitzaion inongo prozedurarik baliatu gabe (4 zenbakiko espedientea A.16an).
6. Guztira 684 mila euroan esleitutako 2 kontratutan, obren azken egikaritzak esleipen prezioa, hurrenez hurren, % 41 eta % 32an gainditzen dute eta honenbestez, urratu egiten dituzte SPKLren lehia printzipioak, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere desitxuratu egiten baitute (7 eta 8 zenbakiko espedientea A.16an).

Epaitegi honen ustetan, Urduñako Udalak, 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalaren 2009ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioaren sarrerren 4. kapituluak itunpeko zergetan parte-hartzeagatik kitatutako eskubideak (Udalkutxa) barne hartzen ditu; eskubide horiek 2.411 mila eurokoak dira eta 2009ko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei eta 2008ko ekitaldiaren kitapen negatiboari dagozkio; hor jasotzeko dago 2009ko ekitaldiaren kitapen negatiboa, 562 mila eurokoa. Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an erabakitakoari jarraiki, kopuru horren itzulera hileroko egingo da 2011ko urtarriletik 2013ko abendura arte, Udalkutxaren konturako dagozkion emakidekin berdinkatuz.

1. Udalak ez du gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopuruak 2009ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duena. Udalak ez du inongo gasturik erregistratzen ibilgetu material eta ez-materialaren amortizazio kontzeptuan.
2. Hona hemen 2009ko abenduaren 31n Urduñako Udalaren gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Funtz Propioak eragiten dituzten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	AURREKONTUZKOA		ONDAREZKOA	
	DIRUZAINZA		FUNTS	
	GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	PROPIOAK
UDALA				
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 2009ko OHZ eta JEZaren likidazioa	110	110	-	110
A.3 Lursailen balio igoeraren gaineko zerga, 2009an sortut.	23	23	-	23
A.3 Ibilgailuen gaineko zerga, 2009an sortut.	16	16	-	16
A.3 2009ko 4. hiruhil. ur, zabor eta estolderia tasak	154	154	-	154
A.5 Hirigintzako aprobetxamenduak	282	282	-	282
Sortu gabeko eta 09.12.31n erregistratutako eskubideak				
A.9 Diru-lag. engatik sarrerren murrizketa (estalkien konponketa)	(60)	(60)	-	(60)
A.4 Udalkutxaren likidazioa, 2009ko ekit.	-	-	562	(562)
09.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
2. kap. gastuak 2009an	(89)	-	89	(89)
Sortu gabeko obligazioak, 09.12.31n erregistratuak				
2. kap. gastuak 2009an	31	-	(31)	31
A.9 6. kap. gastuak, estalkien konponketagatik	188	(188)	(188)	-
Asoziat. finantzak. desbider.	(109)	-	-	-
A.9 6. kap. gastuak, bolatokian obrak	110	(110)	(110)	-
Asoziat. finantzak. desbider.	(110)	-	-	-
Beste batzuk				
A.13 Ibilgetu finantzarioaren balorazioaren zuzenketa	-	3.695	-	3.695
A.13 Finantza inbertsioen balio-galerarako zuzkidura	-	(839)	-	(839)
A.5 Poligono sarbideetarako bideen erregistroa	-	2.778	-	2.778
A.5 La Rondina poligonoa urbanizatzearen gastua	(448)	-	448	(448)
UDALA GUZTIRA	98	5.861	770	5.091

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. idatz-zatietan azaleratutako salbuespenen eragina salbuetsita, Urduñako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.



II.2 SOZIETATE PUBLIKOAK URDUÑEDERRA, URDUÑA EDERRA, SL ETA URDUÑAKO ARKUPEA, SL

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. 2009ko ekitaldiko Lan Ministerioaren ikuskaritza akta baten ondorioz, Urduñako Arkupea, SL sozietate publikoak lan kontratu mugagabe bihurtu ditu sozietatean 1995 eta 2004tik iraupen mugatuko aldi baterako kontratuekin lanean ari ziren bi langileren kontratuak eta egoera berean zeuden gainerako langileei ere ezarri dizkie akta honen ondorioak. Horrela, bada, mugagabe bihurtu dira beste bi langileren kontratuak 2009ko ekitaldian zehar eta beste bi gehiagorenak 2010ean, langile bakar baten egoera utziaz erregularizatze zain. Txosten hau idatzi dugun datan, ez dira lanpostu horiek behinbetiko betetzeko hautaketa-prozesuak onetsi.
2. Urduñederra, Urduña Ederra, SL Sozietate Publikoaren bi langilek 2004 eta 2006an sinatutako lan edo zerbitzu jakinerako lan kontratu bitartez jarraitzen dute zerbitzu ematen; kontratu horiek 30 hilabetetan gainditu dute LETBren 15. artikuluan ezarritako gehieneko 24 hilabeteko epea. Gainera, 2009ko ekitaldian zehar, langile hauetako bati ordainsari maila igo zaio, inongo organok hori berariaz onetsi gabe.

KONTRATAZIOA

3. Urduñako Arkupea, SL sozietateak 2009ko ekitaldian 59 mila euroko gastua egikaritu du, bi kontratari dagokiena, horretarako eskumena duen organoak onespentik eman gabe (ikus A.17.3).
4. Urduñako Arkupea, SL sozietateak jantoki zerbitzuaren kudeaketarako kontratua du indarrean; kontratua Adinekoen udal egoitza kudeatzen zuen aurreko erakundearen eta esleipen hartzailearen artean izenpetu zen 1998an eta urtebete luzagarriko iraupena zuen. 2009ko ekitaldian exekutitutako gastua 125 mila eurokoa izan da, espediente berririk lizitatu gabe; honenbestez, kontratu honen iraupenak era honetako kontratuatarako dagoen legezko zeinahi aurreikuspen gainditu du.

Epaitegi honen ustetan, Urduñederra, Urduña Ederra, SL eta Urduñako Arkupea, SL sozietate publikoek, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Sozietate Publikoen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2009ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalaren 2009ko ekitaldirako aurrekontu orokorra behin-betiko 2009ko ekainaren 24ko Osokoak onetsi zuen; ordea, arautegiak (Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 15.2 artikulua) behin-betiko onespena urte hasiera baino lehenago egitea aurreikusten du.
- Udalak helburudun sarrerak baliatu ditu 405 mila euroko kreditu osagarriak finantzatzeko, nahiz baliabide hau ez den aurrekontuaren aldaketa hauek egiteko finantzaketa iturri modura aurreikusten. Nolanahi den ere, helburudun diru-sarrerei lotutako gastuak aurreikusitako baldintzetan exekutatu dira.
- Udalak ez ditu 2009ko ekitaldian egoki kontabilizatu gastuaren baimen eta erabilera faseak, Aurrekontuaren Exekuziorako Foru Arauaren 6.8 artikulua agintzen duen moduan.
- Kontularitzan erregistratzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:
 - Udalak 2009an 46 mila euro erregistratu ditu jasotako transferentzia eta diru-laguntza kontzeptuko diru-sarrera handi modura, 2008ko ekitaldiaren OHZ eta JEZaren likidazioari dagozkionak; ordea, duten izaeraren arabera, Zerga zuzenen 1. kapituluari erregistratu behar ziratekeen.
 - Udalak aurrekontuz kanpoko kontu hartzekodun batean 1.750 mila euro erregistratu ditu, BFAk obra bat egiteko 2009ko ekitaldian eman eta sartutako diru-laguntza bati dagozkionak. Diru-sarrera horrek duen izaerari erreparatuta, egokiago deritzogu sarreraren 7. kapituluari kontabilizatzeari; baita, zenbateko berean lotutako finantzaketa desbideratzea zenbateko berean erregistratzeari ere (obrari ez zitzaion 2009an ekin); honenbestez, gastu orokorretarako diruzaintza geldikina 2009ko abenduaren 31n ez du eragiten.
 - Udalak langileen ordainsariak ez ditu erregistratu ez aurrekontuan, ez exekuzioan ere, dagozkion kontzeptuarekin, lan-harremanaren arabera.
 - Gastuen 4. kapituluari Confederación Hidrográfica del Cantábrico delakoari ordaindutako isurketen kontrolaren gaineko kanona erregistratu da, 66 mila eurokoa; egokiagoa da gastuen 2. kapituluari erregistratzea. Berebat, Udalak 2009an zehar 2. kapituluari 27 mila euroren gastuak erregistratu ditu, Otxomaioko jaietarako emandako diru-laguntzei dagozkienak; ordea, egokiagoa da gastuen 4. kapituluari erregistratzea.
 - Udalak 2009ko abenduaren 31ko egoera balantzearen “Diruzaintza” idazpuruan, 2.552 mila euroren zenbatekoa du erregistratua, epe laburrerako ezarpenetan



jarritako diruzaintzako soberakinei dagokiena; horiek, ordea, “Aldi baterako inbertsio finantzarioak” idazpuruan erregistratu behar lirateke.

- Udalak 2009ko abenduaren 31n indarreko zorraren gainean egin duen epe labur eta luzearen arteko sailkapena ez da zuzena. Hori egoki erregistratzeko 74 mila euroan gehitu beharko litzateke epe laburreko zorpetzearen zenbatekoa eta kopuru berean murriztu epe luzeko zorpetzea.

III.2 LANGILERIA

- 2008ko abenduaren 17an, Udalaren Osokoak funtzionarioen eta lan kontratupeko langileen lan baldintzak 2008-2010 aldirako arautzen dituen erabakia bere egitea onetsi zuen. Erabaki horri ez zaio BAOn nahitaezkoa den publizitatea eman (EFPLren 102.3 artikulua).
- Udalak ez ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu alkatearen ordainsariak eta dedikazio eskusiboa aitortzen zituen udalbatzaren erabakia; ez eta zinegotzientzat asistentziagatiko kopuruak eta kalte-ordainak ere; honek TAOLen 75.5 artikulua urratzen du.
- 2009ko ekitaldian zehar, administrazioarekiko auzietako epaitegiak 3 langilek aurkeztutako errekurtsua baietsi du eta errekurtsogileei 2006ko ordainsariekiko soldata masaren % 1eko igoera izateko eskubidea aitortzen die, Estatuko 2007rako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitakoa. Epai honen ondorioz, Udalak 2009an funtzionario guztiei 3 mila euro ordaindu zien, 2007ko ekitaldiaren igoerari zegozkionak, nahitaezko onespena eman gabe. 2010eko ekitaldian, berriz, Alkatetzaren dekretu bitartez onetsi ondoren, 15 mila euro ordaindu ziren 2008tik 2010era bitarteko ekitaldiei zegozkienak.
- 2009ko ekitaldian Udalak indarrean zuen LZk funtzionarioentzat gordetako lanpostuak zituen, 2009ko abenduaren 31n hutsik zeudenak eta azken ekitaldietan lanpostu hutsak behin-betiko betetzeko egindako EPE edo deialdietan barne hartu ez direnak. Guztira 11 dira lanpostu hutsak; horietatik 4 bete gabe eta aurrekontuan jaso gabe daude eta gainerako 7etatik, 2 desagertu egingo dira, 1, 2008ko amaieran sortu zen eta 4 bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako lan kontratupeko langileek betetzen dituzte; azken 5 lanpostu hauek EFPLren 23. artikulua urratzen dute, zeinak dioen udalean dauden langileekin aurrekontuan diru-izendapena duten giza baliabideen beharrianak ase ezin badira, Enplegu Publikoaren Eskaintzan jasoko direla. 2011ko maiatzaren 11n EHAAn 2011ko ekitaldiari dagokion EPE argitaratu zen eta bertan lanpostu horietako 4 barne hartu ziren.
- Udalak ez du gauzatutako egintzen nahikoa euskarri edo ebidentziarik uzten, bitarteko funtzionarioen izendapen eta aldi baterako kontratazioetarako lan poltsak zuzen kudeatu direla egiaztatzea bideratuko dutenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak kultura eta kirol jarduerak garatzeko elkarlehian emandako diru-laguntzek, hurrenez hurren, 12 eta 20 mila eurokoak, honako akats hauek erakusten dituzte:
 - Urteko deialdietan ez da emango diren diru-laguntzen gehiengo kopuru osoa finkatzen.
 - Emakidaren ebazpenek ez dituzte onuradun bakoitzari emandako zenbatekoak arazoitzen eta ez dituzte irizpide objektiboak ezartzen. Gainera, ez dira erasota utzi, kasua denean eta berariaz, ezetsi diren eskabideak, DLOren 25. artikulua agintzen duen moduan.
 - Zenbaitetan, ematen den diru-laguntzaren zenbatekoak onuradunak superabita izatea eragiten du eta horrek DLOren 19. artikulua urratzen du.
 - Aztertutako espedienteetako batean, 14 mila euroren zenbatekoan kirol jarduerak garatzeko emandako diru-laguntza baten onuradunak ez du garatu eta diruz lagundutako jardueraren gastua justifikatu eta ez zaio laguntza ez justifikatzeko, ez itzultzeko eskatu.
- Udalak 2009ko ekitaldian 22 mila euroko diru-laguntza eman zion Santa Cecilia Musika Bandari, 2005eko ekitaldian urtebeterako eta beste hirutara luzagarri zen izenpetutako hitzarmenaren babesean; ordea, ez da inongo zenbatekorik justifikatu.

Udalari bere jarduera ekonomikoaren gaineko barne kontrol egokia bermatuko duten prozedurak finkatu eta ezartzera zuzendutako neurriak hartzeko gomendatzen zaio, DLOn eta Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAre IV. Tituluan aurreikusitako terminoetan.

III.4 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.16):

- **Espedientea abiaraztea eta Administrazio klausula partikularren pleguak**

Sei kontraturi dagozkien pleguek (horietako bat aleko prezioetan esleitua, eta gainerakoak, 1.780 mila euroan), besteak beste, esleipen irizpide zehazgabeak, ez objektiboak edo lehiatzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 86.1 artikulua eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (aurrerantzean SPKL) 134.1 artikulua agintzen duten moduan (2 zenbakiko espedientea eta 5etik 9ra bitartekoa).

Aztertu ditugun lau kontraturen pleguek, horietako bat aleko prezioetan esleitutakoa eta gainerakoak, 1.395 mila euroren prezioan, ez dituzte eskaintza ekonomikoak baloratzeko formula aritmetikoak edo bestelakoak barne hartzen (APKLTBren 86. artikulua eta SPKLren 134. artikulua) (2, 5, 6 eta 7 zenbakiko espedientea).



Obra kontratu baten lehia espedientean, 216 euroren zenbatekoan esleitu zena, dokumentazio juridikoa falta da (eskritura, ahalordetzea, kontratatzeke debekuetan ez dagoelako aitortpena...) eta honenbestez, ez daiteke horren gaineko legezko kontrolik egin (SPKLren 43. artikulua) (9 zenbakiko espedienteak).

Aleko prezioetan esleitutako zerbitzu kontratu batean (2 zenbakiko espedienteak) pleguek ez dituzte kontratua exekutatzeke beharrezko baliabideak jasotzen eta zerbitzuak kudeatzeko beste bi kontratutan, 880 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, pleguek ez dituzte Udalak esleipendunaren esku jarritako ondasun edo eskubideen zerrendak zehazten; horrek guztiak SPKLren 67. artikuluan eta APKLTBren 19 eta 158. artikuluetan xedatutakoak urratzen du (5 eta 6 zenbakiko espedienteak).

2009an publizitate bidezko prozedura negoziatu bidez 515 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean ez dira pleguetan zehaztu negoziatu beharreko alderdiak eta ez da jaso negoziazio horren emaitza espedientean esleipena gauzatzeko unean, SPKLren 153 eta 160 artikuluek agintzen duten moduan (7 zenbakiko espedienteak).

- **Esleipena**

Sei esleipenetan, horietako bat aleko prezioetan eta gainerakoak guztira 1.780 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide eta azpi-irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek behar hainbat justifikatzen (2 zenbakiko espedienteak eta 5etik 9ra bitartekoak).

515 mila euroren zenbatekoan esleitutako kontratu batean, behin-betiko bermea SPKLren 83. artikulua agintzen duenaz beheiti eratu da (7 zenbakiko espedienteak).

Guztira 880 mila euroan esleitutako bi kontratutan, esleipena ez da BAOn argitaratu eta horrek APKLTBren 93.2 artikulua urratzen du (5. eta 6. espedienteak).

Guztira 300 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean esleipen hartzaile den enpresak ez du egiaztatu giza eta zerga obligazioak bete dituela eta horrek APKLEOren 13. artikulua eta hurrengoak urratzen ditu (5 zenbakiko espedienteak).

- **Exekuzioa eta harrera**

Bi obra kontratutan, 385 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, ez da zuinketa egiaztatzeke akta gauzatu (SPKLren 212. art.) eta horrek ematen dio hasiera exekuzio epeari. Gainera, obren harrera atzerapenez egin da aurreikusitako amaiera epearekiko, epe luzaketarik batere onartu gabe (SPKLren 218. artikulua) (8 eta 9 zenbakiko espedienteak).

Gizarte-etxean obrak egitea eta ekipamendua xede duen espediente aldatuaren esleipena gauzatu da, 213 mila eurokoa, aldaketa interes publikoko arrazoiengatik edo ustekabeko kausei aurre egiteke egin dela justifikatu gabe (SPKLren 202 artikulua) (7 zenbakiko espedienteak).

469 mila euroren zenbatekoan esleitutako bi espedientetan (5 eta 8 zenbakiko espedienteak), ez dira dagozkion kontratu aldaketak izapidetu.



Bi kontraturen ziurtagiriak -bata, aleko prezioetan esleitutakoa eta bestea, 216 mila euroan, ez ditu horretarako eskumena duen atalak onetsi (2 eta 9 zenbakiko espedienteak).

Bide-garbiketa zerbitzua ematea xede duen espedientea 2003an 300 mila euroren zenbatekoan eta guztira 6 urteko iraupenarekin, luzapenak barne, esleitu zen; ordea, ez dira kontratuaren luzapenak izapidetu, APKLTBren 67. artikulua urratuz. Gainera, kontratua betetzeko epea amaitutakoan ez da emandako zerbitzuak jasoko dituen txostena aurkeztu, AKPPak agintzen duen moduan (5 zenbakiko espedientea).

216 mila euroan esleitutako kontratu batean ez dago obren azken ziurtagiririk (SPKLren 218. artikulua) (9 zenbakiko espedientea).

- **Erosketa txikien eta bestelakoen analisisa**

Guztira 244 mila euroan gauzatutako gastuak kontratu txiki modura izapidetu dira; ordea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin antzekoak erosi zirelako (ikus A.16).

Udalak 2007az geroztik Gartxetako Edateko Uraren Tratamendurako Estazioa (ETAP) ustiatu eta mantentzeko Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoarekin (ez da bertako kide) izenpetutako lankidetza hitzarmenak sinatu eta luzatu ditu, inongo kontratazio prozedurarik bideratu gabe. 2009ko urtean kontzeptu horren izenean egindako gastua 109 mila eurokoa izan da. 2011ko martxoaren 29an Partzuergoaren batzar nagusiak Urduñako Udala aipatutako partzuergoan sartzea onetsi du.

III.5 DIRUZAINNTZA

- Diru-funtsask baliatzeko baimendutako sinadurak ez dira gaurkotu; honela, bada, ordezko modura egungo legegintzaldian ez dagoen zinegotzi baten sinadura dago jaso.

III.6 BESTELAKOAK

- 2008ko uztailaren 23an Urduñako udalbatzak Urduñederra, Urduña Ederra, SL Sozietate Publikoari Alhondiga gizarte-etxe bihurtzeko eraikinaren barrualdea egokitzeko lanen kontratazioa, kontrola eta egikaritzaren kudeaketa egiteko agintzen dio; guztiaren zenbatekoa 1.539 mila euro izatea aurreikusi zen, proiektua idatzi eta obra zuzentzeko gastuak barne (ikus A.17.1). Nahiz bi erakundeen arteko harremanak SPKLren 4.1 n) eta 24.6 artikuluetan araututakoekin bat datozen, Sozietateak berariaz jaso behar du bere estatutuetan berezko baliabide eta Udalaren zerbitzu tekniko izatea eta aginduen araubidearen jarraibide erregulatzailak zehaztu behar dira; bertan jasoko dira tarifak, Udalak onetsi behar dituenak. Gainera, agindutako lanak Urduñederra, Urduña Ederra, SLk, aldi berean kontratatu egin behar izan ditu, berezko baliabideekin egin ezin zituelako. Honen guztiaren ondorioz, Udalak gauzatutako obraren gainean azken prezioa baino 64 mila euro gehiago ordaindu behar izan ditu; gainprezio hori, ordea, ez da aurrez



finkatutako tarifa edo ehunekoen arabera kalkulatu, non sozietateak aipatutako agindua betetzeko egindako gastu orokorrak jasotzen diren.

- 2009ko irailaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarrak adinekoen udal egoitzaren eraikinaren lehenengo solairua partzialki zaharberritzeko oinarrizko proiektu balioztatua onestea erabaki zuen, 173 mila eurokoa, BEZ barne (149 mila euro, BEZ gabe); saio berean Urduñako Arkupea, SLri proiektua egiteratzeko agintzea eta egoitzaren ekipamendua, 66 mila eurokoa, BEZ barne (57 mila euro, BEZ gabe) bere gain hartzeko baimentzea ere bai. Mandatua 2009ko irailaren 22an gauzatu zen Urduñako Arkupea, SLren eta Urduñederra, Urduña Ederra, SLren artean kontratu bidez eta aldi berean, lan horiek hirugarren bati kontratatu zitzaizkion (ikus A.17.1). SPKLren 4.1 n) eta 24.6 artikuluetan adierazitakoari jarraiki, Urduñako Arkupea, SLk bere estatutuetan jaso beharko du berezko baliabide eta Udalaren zerbitzu tekniko izatea eta aginduen araubidearen jarraibide erregulatzailerak zehaztu. Horren guztiaren ondorioz, Urduñako Arkupea, SLk agindutako ondasunak ibilgetuan sozietateak berak obrak eta ekipamenduaren erosketa zuzenean kontabilizatu izan balitu baino 31 mila euro gehiagoko balioarekin erregistratu ditu.

III.7 SOZIETATE PUBLIKOAK. URDUÑEDERRA, URDUÑA EDERRA, SL ETA URDUÑAKO ARKUPEA. SL

Aurrekontua eta Kontabilitatea

- Udalak eta BFAk Urduñako Arkupea, SLri egoitza zaharberritzeko obrak eta ekipamendua (Urduñederra, Urduña Ederra, SL sozietateari agindutakoak) finantzatzeko emandako diru-laguntzek 32 mila euroan gainditu dute diruz lagundutako objektuen kostua, eragiketaren BEZ barne hartu baita. Gainera, Udalak emandako diru-laguntzak, 83 mila euro egin dituztenak, galera eta irabazien kontuan erregistratu ditu sozietateak. Eragiketa egoki erregistratzeko murriztu egin beharko litzateke ekitaldiaren emaitzen kontua eta 83 mila euroan gehitu 2009ko abenduaren 31n Egoera balantzeko diru-laguntza, dohaintza eta legatuen kontua.
- Honela, bada, Urduñako Arkupea, SLren ondarearen oreka berrezartzearen, udalbatzak 2009ko azaroaren 25ean egindako bilkuran bi eragiketa batera egiteko erabakia hartu zuen: bata, kapitala murriztekoa, 476 mila eurokoa (375 mila euroko galerak berdintzeko eta gainerakoa, borondatezko erretserbetarako) eta bestea kapitala zabaltzekoa, 2 mila eurokoa; azken eragiketa honen kontrabalioa Udalak sozietatearen aurkako kredituak baliogabetzea da, udalbatza egin zen unean likidoak eta eskagarriak zirenak. Aldaketa horiek, ordea, 2010eko ekainaren 10era arte eskrituratu ez direnez gero, ez ziratekeen Sozietatearen 2009ko abenduaren 31ko finantza egoeretan islatu behar; honenbestez, “Kapitala” eta “Epe luzeko zorrak” kontuak, hurrenez hurren, 474 eta 2 mila euroan gehitu behar lirateke eta “Borondatezko erretserbak” kontua 101 mila euroan murriztu; berebat, “Aurreko ekitaldietako emaitzak” kontua 375 mila euroekin berrezarri beharko litzateke.



Langileria

- Urduñako Arkupea, SL Sozietate Publikoak ez du berariaz onetsi Udalhitz Akordioarekiko atxikimendua, nahiz izatez, hitzarmen horrek arautzen dituen.
- Urduñako Arkupea, SL Sozietate Publikoak 2009ko ekitaldian bi langile pertsonal finko modura kontratatzeke deialdia egin zuen eta udalaren web orrian argitaratu zuen eta udalerriko hainbat gunetan iragarkiak jarri zituen; ordea, gomendagarria litzateke aldizkari ofizialetan argitaratzea.

Kontratazioa

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta iritziaren atalean aipatu ditugun ez betetzeak alde batera, honako alderdi hauek bereizi behar ditugu (ikus A.17.3):

- **Espedientea abiaraztea eta Administrazio klausula partikularren pleguak**

Urduñako Arkupea, SL eta Urduñederra, Urduña Ederra, SL sozietateek ez dute erregulazio harmonizatuari meneratzen ez zaizkion kontratuetan kontratazio prozedurak arautuko dituen instrukziorik, SPKLren 175 b) artikulua agintzen duen moduan.

Guztira 2.071 mila euroan esleitutako lau kontratuei dagozkien pleguek, besteak beste, esleipen irizpide zehaztugabeak, ez objektiboak edota lehiatzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 86.1. artikulua eta SPKLren 134.1 artikulua agintzen duten moduan (1etik 4ra bitarteko espedientea).

Bi kontraturen pleguek, guztira 1.883 mila euroan esleitutakoek, ez dituzte eskaintza ekonomikoak baloratzeko formula aritmetikoak edo bestelakoak barne hartzen (SPKLren 134. artikulua) (1 eta 5 zenbakiko espedientea)

- **Esleipena**

Guztira 1.497 mila euroko bi esleipenetan, aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak pleguan irizpide eta azpi-irizpide bakoitzari emandako puntuazioak zehazten ditu, baina ez ditu emandako puntuazio horiek justifikatzen (1. eta 2. espedientea).

Guztira 532 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean ez dago erasota esleipen hartzaile den enpresak giza eta zerga obligazioak bete dituela eta horrek APKLEOren 13. artikulua eta hurrengoak urratzen ditu(4. espedientea).

Turismo bulegoaren kudeaketa zerbitzua ematea xede duen espedientea 42 mila euroren zenbatekoan esleitu zen urtebeteko aldirako eta beste 4tara luzagarri; ordea, espediente horren luzapenek kontratuan hasiera batean zehaztutako epea (urtebete) gainditzen dute eta SPKLren 279 artikulua urratzen.



- **Erosketa txikien analisisa**

Urduñako Arkupea, SL sozietateak 59 mila euroko gastuak egin ditu, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak (ikus A.17.3).

Beste batzuk

2009ko ekitaldian zehar Urduñederra, Urduña Ederra, SL Sozietate Publikoak Udalarari 95 mila euroko gastuak fakturatu dizkio, enpresa ekimenen mintegia sortzeko; Udalak, ordea, ez du halakorik egiteko agindu, eta horretarako eskumena duen atalak ere ez du gastua berariaz onetsi (ikus A.16).



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko				
	Urtea		09	Urtea			_Erref._	
	07(*)	08(*)		07	08	09	Bizk	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.651	1.481	1.644	399	353	390	561	534
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4)	3.363	3.733	3.144	813	889	745	778	718
Ondare sarrerak (5. kap.)	14	62	49	3	15	12	50	38
A. Diru-sarrera arruntak	5.028	5.276	4.837	1.215	1.257	1.147	1.389	1.290
Langileria gastuak (1. kap.)	1.243	1.243	1.226	301	296	291	319	313
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	2.722	2.691	2.798	658	641	663	543	505
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	268	276	342	65	66	81	165	156
B. Funtzionamendu gastuak.....	4.233	4.210	4.366	1.024	1.003	1.035	1.027	974
Aurrezki gordina (A-B)	795	1.066	471	191	254	112	362	316
- Finantza gastuak (3. kap.).....	160	155	101	39	37	24	12	16
Emaitza arrunta	635	911	370	152	217	88	350	300
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	152	191	206	37	46	49	40	43
Aurrezki garbia	483	720	164	115	171	39	310	257
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-	128	133
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	883	1.249	3.059	214	298	725	310	265
- Inbertsio errealak (6. kap.)	3.143	2.401	2.664	760	572	631	737	665
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	-	-	210	-	-	50	14	19
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(2.260)	(1.152)	185	(546)	(274)	44	(313)	(286)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(1.625)	(241)	555	(394)	(57)	132	37	14
Diruzaintzako geldikina.....	(127)	271	756	(31)	65	179	598	539
12.31n zorpetzea	3.816	3.625	3.419	923	864	810	279	341

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundeen Kontuei buruzko HKEEren 2007ko behin-betiko txostena. "Bizk." eta "EAE" erreferentziak, 1.001 eta 5.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaia eta EAEko udalen datuei dagozkie.

Sarrera arruntak: 2008an % 5 egin dute gora eta % 8 egin dute behera 2009an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekiko. Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Sarrera hauek % 10 egin dute behera 2008an eta % 11 gehitu dira 2009an. Hona hemen aldakuntza nagusiak:
 - Zerga zuzenek eragindako sarrerak % 20 gehitu dira 2009an, batik bat presio fiskalak gora egin duelako OHZaren oinarria % 2 igo delako eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren urteko tipo zergagarrietan % 4,9ko igoeraren ondorioz.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gainera, aurreko ekitaldiarekiko bi zergetan gehitu zen ordainagiri kopurua, % 5 eta % 9, hurrenez hurren.

- Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zergak eragindako sarrerak ekitaldi bakoitzean onesten diren eraikuntza-proiektu eta lizentzien baitakoak dira eta honenbestez, sektorearen fluktuazioetara meneratuak daude; honela, bada, jarduera handikoa izan zen sektorea 2008ko ekitaldian, 83 mila euroko diru-sarrerak eraginez eta aldiz, 2009ko ekitaldian sortu zituen diru-sarrerak 56 mila eurokoak izan ziren.
- Tasak eta bestelako sarrerak % 11 gehitu dira 2009an. Igoera honen arrazoi nagusia Urduñako Udalak hirugarren bati guztira 11 mila euro egin dituzten 3 hertsatzeko isun ezarri izana da; izan ere, Parte Zaharreko Monumentu Multzoaren kategoriarekin kalifikatutako eraikin baten gaineko exekuzio agindua ez zuen bete, apaindura publiko eta segurtasun arrazoiengatik.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako diru-sarrerak % 11 gehitu ziren 2008an eta % 16 murriztu 2009an. Osagairik garrantzitsuena Udalkutxa da eta horren likidazioak onartzen diren ekitaldian erregistratzen ditu Udalak; horregatik, 2008ko likidazio negatiboak 2009an du eragina eta berebat, 2009ko likidazioak eragindako 562 mila euro negatiboak etorkizuneko urteetan erregistratuko dira, itzulketa gauzatzen denean. Kontzeptu honen izenean hirurtekoan erregistratutako diru-sarrerak 2.634, 2.984 eta 2.411 mila eurokoak izan dira.

Funtzionamendu gastuak: % 4 egin dute gora 2008ko ekitaldiarekiko; langile gastuak % 1 murriztu dira, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak % 4 egin du gora eta transferentzia arruntek eragindako gastua % 24 igo da. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- **Langile gastuak:** ez zen aldaketarik izan 2008an eta % 1 egin zuen behera 2009ko ekitaldian, nagusiki, aldi-baterako langileen kontratazioa murriztu zelako, bai enplegu programetan, bai aldi bateko beharrak betetzekoetan ere (2008an 21 aldi-baterako langile izatetik 2009an 15 izatera aldatu zen). Gastu txikiago hau hein batean 2009ko ordainsarien igoerarekin berdinduko da; igoera % 2,4koa izan zen.
- **Ondasun arruntaren erosketak eta zerbitzuak:** %1 egin zuten behera 2008an eta % 4 gehitu ziren 2009an, bariazio adierazgarriarik inongo kontzeptuk izan ez duela.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** gastu hauek % 3 gehitu ziren 2008an eta % 24, berriz, 2009an. Igoerarik adierazgarriena 2009an 66 mila euroren kontabilizazioak eragin du, 2003tik 2007ra bitarteko urteetan isurketen kontrolaren kanonari dagokiona; baita, gizarte larrialdietarako laguntzen gastuari aurre egiteko transferitutako 33 mila euroren aparteko kontu sail batek ere. Kopuru hauek hein batean berdindu dira kirol eta nekazal jardueretarako emandako diru-laguntzak 33 mila euroan murriztu direlako.

Aurrezki gordina: Magnitude hau % 34 igo da 2008ko ekitaldian sarrera arruntek gora egin izanaren ondorioz; aldiz, 2009an % 56ko murrizketa izan du, nagusiki sarrera arruntaren murrizketaren ondorioz (% 8) -itunpeko zergen diru-bilketan parte-hartzeak izan duen



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

beheraldiak eraginda-, funtzionamendu gastuek izan duten igoera neurrizkoaren aldean (% 4).

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Udalak 2008 eta 2009am ez du berriz zorpetu beharrik izan eta aurrezki garbi positiboa du, nahiz 2008koa baino % 77 txikiagoa den. 2009ko abenduaren 31ko zorpetzeari dagokionez, berriz, ekitaldi horretako sarrera arrunten % 71 egiten du eta horren ondorioz, gastu arruntak finantzatzeko marjina murrizta da. Gainera, aintzat hartu behar da 2009ko abenduaren 31n Udalak ez duela Udalkutxaren 2009ko ekitaldiaren behinbetiko likidazioa erregistratu, 562 mila eurokoa, itzulketa 2011, 2012 eta 2013an egingo delako.

Kapitalezko eragiketen emaitza: Aztergai izan dugun aldian, Udalak egin duen inbertsio-ahalegina handia izan da, 8.418 mila eurokoa inbertsio eta kapitalezko diru-laguntzen artean eta hein batean, jasotako kapitalezko diru-laguntzen bitartez finantzatu da, 5.191 mila eurokoak. 2009an magnitude honen ikurra positiboa da, 185 mila euroan. Ekitaldian zehar La Alhondiga Gizarte Etxean egindako lanak eta gizarte-etxea eraikitzeako gailentzen dira, hurrenez hurren 1.031 eta 732 mila eurokoak; lehenengoaren eraikuntza lanak Urduñederra, Urduña Ederra, SL udal sozietate publikoari agindu zaizkio.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2007 eta 2008ko ekitaldietan urrituz doan saldo negatiboa erakutsi du eta 2009an positibo bilakatu da 555 mila euroan; horren arrazoa, nagusiki, arestian aipatutako kapitalezko eragiketen emaitza positiboetan datza.

Diruzaintza geldikina: Magnitude hau % 695 gehitu da aztertutako aldian eta 2007an geldikin negatiboa izatetik 2008 eta 2009an positiboa izatera aldatu da, 271 eta 756 mila euroan hurrenez hurren; izan ere, gastuei eutsi zaie, inbertsioak jasotako kapitalezko diru-laguntzekin finantzatu dira eta kobratzeko saldoek behera egin izanaren ondorioz kaudimengabeziarako zuzkiduraren zenbatekoa ere txikiagoa izan da.

Biztanleko ratioak - beste udal batzuekiko alderaketa: Informazio modura, 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaia eta EAEko udalen batez bestekoaren 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez.



Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikina eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Aztergai izan dugun aldian, Urduñako Udalak inbertsio ahalegin handia egin du eta hori finantzatu da, nagusiki, kapitalezko diru-laguntzekin (% 62), aurrezki garbiarekin -2007 eta 2008an gehitzen joan dena, baina murriztuz 2009an, itunpeko zergen sarrerek behera egin dutelako- eta neurri txikiagoan diruzaintza geldikinarekin. Gogoan izan behar da zorpetze maila adierazgarria dela (3.419 mila euro) eta datozen 16 urteetan printzipalaren itzulketari eta maileguen interesen ordainketari egin beharko diola aurre. Horregatik guztiagatik, Udalak zerbitzuen kostuei eusteko ahalegina egin behar luke, sarrera arruntak egonkor daudela edo murrizten ari direla ikusita.

2010eko ekitaldian Udalak onetsi duen aurrekontuan (Epaitegi honek fiskalizatu ez duena) gastuen eta sarreraren egoera % 15 eta % 18 txikiagoa da aurreko ekitaldian kitatutako gastu eta sarrerak baino eta 2010eko ekitaldiaren aurrekontuen likidazioan, magnitude horiek azkenean, hurrenez hurren, % 21 eta % 6 egin dute behera. Aurrezkiak aurrezki, 2010eko ekitaldiaren aurrekontu likidazioaren aurrezki gordin eta garbiak negatiboak izatera aldatu dira, gastu arruntak diru-sarrera arruntak baino handiagoak izan direlako. Aldiz, kapital-eragiketen emaitzak % 857ko igoera itzela izan du, egiazko inbertsioetan gastuak txikiagoak izan direlako (761 mila euro) eta jasotako kapital diru-laguntzek eragindako sarreraren ondorioz (2.335 mila euro). Finantzaketaren desbideratze positiboak aintzat hartzen baditugu, 1.842 mila eurorenak, 2010eko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikina positiboa izan arren (365 mila euro), 2009ko ekitaldiarekiko % 52 txikiagoa da. Egoera honen aurrean, etorkizuneko inbertsioak diru-laguntzak eskuratzeari meneratzen zaizkio.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2009-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	546	20	566	599	599	-	106
2.- Zeharkako zergak	A.3	80	-	80	56	54	2	70
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	910	53	963	989	933	56	103
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	A.4	2.898	179	3.077	3.144	3.100	44	102
5.- Ondare sarrerak.....		48	-	48	49	43	6	102
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.5	-	-	-	-	-	-	-
7.- Transf. eta kapitalezko diru-lag.	A.4	1.007	1.744	2.751	3.059	2.091	968	111
8.- Finantza aktiboen aldak.		-	271	271	-	-	-	(*) -
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		5.489	2.267	7.756	7.896	6.820	1.076	(*) 105

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTU	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.				
1.- Langileria-gastuak.....	A.6	1.190	117	1.307	1.226	1.202	24	94
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb. ...	A.7	2.705	166	2.871	2.798	2.252	546	97
3.- Finantza gastuak.....	A.10	136	(14)	122	101	101	-	83
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	A.8	260	91	351	342	334	8	97
6.- Inbertsio errealak	A.9	1.006	1.683	2.689	2.664	1.775	889	99
7.- Kapitalezko transferentziak	A.8	-	210	210	210	210	-	100
9.- Finantza pasiboen aldak.....	A.10	192	14	206	206	206	-	100
GASTUAK GUZTIRA		5.489	2.267	7.756	7.547	6.080	1.467	97
SARRERAK - GASTUAK					349			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOB.R./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Zordunak	A.11	803	(114)	(566)	123
